



BILBON, ARTEA BIZI EGITEN DA

Bilbok Arteen Asteburuaren IV. edizioa antolatu du. Maiatzaren 13an eta 14an izango da eta guztientzat pentsatutako kultura- eta aisialdi-programa handinahi bat edukiko du

Bilbao Art District-ek Bizkaiko hiriburuko kultura-jardueraren eta jarduera artistikoaren garrantzia nabarmendu nahi du eta herritarrei parte hartzeko gonbidapena luzatu nahi die, hitzordu horren benetako protagonistak baitira

Nazioarteko proiektzioa duten artistek, besteak beste, Rogelio López Cuenca edo Felipe Pantone artistek, esku-hartze artistikoak jendaurrean erakutsiko dituzte, artelanak garatzean publikoak paper aktiboa beteko baitu

“Egungo artearen ekitaldiak, proposamentak eta egoerak. Arteak aurrera egin dezan beharrezkoak diren (ala ez)”. mahai-ingurua aztertzeko eta hausnartzeko tokia izango da

Guggenheim Bilbao Museoak, Bilboko Itsasadarra Itsas Museoak eta hiriko beste esparru artistiko batzuek bat egingo dute ate irekiko jardunaldiak eta doako sarrerek dituen ekimenarekin

Galerietan eta erakusketa-geletan artista asko izango dira, besteak beste, Ato Malinda, Paula Rubio Infante, Iñigo Cabo, Mikel Lertxundi edo Antonio Ranieri

Euskal Herriko Unibertsitateko Arte Ederretako Fakultateko ikasleek beren esku-hartzeak erakutsiko dituzte hiriko zenbait gunetan; gainera, *performance*-ak, kontzertuak eta haurrentzako tailerrak hartuko dituzte

Bilbon, 2016ko maiatzaren 10ean. Bilbao Art District-ek, berriz ere, artez eta bizitasunez josiko ditu hiriko kaleak, esperientziak partekatzeko espazioak eratuko ditu, non hausnartu, pentsatu eta inspiratzeko aukera egongo den, bai eta artea sentitzeko eta bizitzeko aukera ere. Maiatzaren 13an eta 14an, Arteen Asteburua ospatuko da



Bizkaiko hiriburuan. Artistentzako eta artea maite dutenentzako topagune bat izango da, baina, batik bat, kulturari irekitako espazio bat egongo da, eta herritarrek arteaz zuzenean gozatu ahal izango dute eta artelanen garapenean parte hartu. Adin guztietako pertsonak izango dira Bilbon egonkortuta dagoen hitzorduko protagonista. Ekimenaren erreferentzia-zentroak museoak, erakusketa-aretoak eta galeriak izango dira, baina baita kaleak eta beste espazio publiko batzuk ere, esku-hartze artistikoei estaldura emateko oihal eta agertoki izango direnak.

Bilbao Art District hiriko ekimen estrategiko bat da; Bilboko Udalak eta Bizkaiko Foru Aldundiak bultzatzen dute, Guggenheim Bilbao Museoarekin, Arte Ederren Museoarekin eta Bilboko Itsasadarra Itsas Museoarekin elkarlanean. Hiriko arte-galeriak dira proposamen horren motorra; urtez urte jarraitzaileak irabazten ditu, eta haren lehentasunezko helburua, besteak beste, hiriaren identitate artistikoa bultzatzea, kulturarekiko pasioa sustatzea eta publiko berriei arteari buruzko interesa piztea da. Gainera, Iberdrolak ere Bilbao Art District ekimenean hartzen du parte.

Partekatzeko artea. Esku-hartzeak, tailerrak eta hitzaldiak

Arteen Asteburuaren IV. edizioak dozenaka proposamen dituen jarduera-programa oso bat aurkeztuko du, pertsonak ekitaldiko protagonistak izan daitezten, esku-hartze artistikoetan parte har dezaten eta hiriko kaleak haien sormena adierazteko agertoki aproposa izan daitezten. Nazioarteko proiektioa duten artistek kaleak, galeriak eta museoak artez beteko dituzte, hau da, bizitasunez beteko dituzte. Malagako Rogelio López Cuenca artistak, Mawatres komisarioarekin batera, parte hartzeko Altercartográfica delako tailerra zuzenduko du; haren bidez, Bilbo ikuspuntu ezberdinetatik berriz pentsatzeko eskatuko du. Azken obra Bizkaia Aretoan jarriko da ikusgai maiatzaren 13an eta 14an.

Beste alde batetik, Felipe Pantonek esku-hartze plastiko bat garatuko du publikoaren aurrean, Uribitarte pasealekuan dagoen ontzi-edukiontzi baten gainean. Iñigo Cabok, Windsor Kulturgintza galeriarekin elkarlanean, *Artistas trabajando: discontinuidad* proiektua garatuko du zuzenean. Klean gauzatuko den tailer artistiko bat da, eta ikusleek ere parte hartu ahal izango dute. Halaber, Mikel Lertxundi artista



bizkaitarraren *Toparri II* eskultura izango dugu, eta ostiralean zein larunbatean, arratsaldeko 19:00etatik aurrera, dantzari profesional batek eskulturaren gainean dantzatuko du harekin harremanetan dagoen bitartean. Kale Nagusian izango da hori, Diputazio kalearekin gurutzatzen den izkinan.

Ajuriagerra kalean, Ato Malinda keniatarrek *Ambivalente y aliviada; esta cerdita fue al mercado* izeneko *performance* bat egingo du. Bertan, obren jabetasunari eta lanak erabiltzeko moduari buruzko gogoeta egingo du. Antzerkiak eta eskulturak bat egingo dute Mazarredo kalean egingo den *Kabaret dell' arte* ikuskizunean. Lan hori Antonio Ranieri eskultore italiarraren obra bat da, eta Bea Insa aktorea du protagonista.

Euskal Herriko Unibertsitateko Bizkaia Aretoan, "*Egungo artearen ekitaldiak, proposamentak eta egoerak. Arteak aurrera egin dezan beharrezkoak diren (ala ez)*". mahai-ingurua hartuko da maiatzaren 13an, ostirala, 17:00etatik aurrera. Hausnartzeko espazio bat da, non hiriko praktika artistikoek berregituratzeko duten gaitasuna ikuspuntu ezberdinetatik aztertuko den.

Bizitzeko artea. Bisita gidatuak

Arteen Asteburuan, interes artistiko eta kulturala duten hiriko espazioetara ibilbide eta bisita gidatu ezberdinak egingo dira. Larunbatean, maiatzak 14, SC Gallery-ren kargura, ikusle guztientzat egokia den erakusketa bat egingo da Bilbo Zaharreko horma-arteari buruz. Severino Achúcarro arkitektoa jaio zeneko 175. urteurrena dela-eta, arkitekto horren zenbait eraikin bisitatuko dira ostiralean, maiatzak 13, eta larunbatean, maiatzak 14. Ibilbideen programan, bizikletaz egiteko ibilbide bat egongo da, non gidari profesional batekin hiriko artistak, obrak, proiektuak eta txokoak berriz deskubritzeko aukera eskainiko den.

Hazteko artea. Euskal Herriko Unibertsitateko ikasleak

Euskal Herriko Unibertsitateak (EHU) betekizun erabakigarria izango du Arteen Asteburua diseinatzean. Arte Ederretako Fakultateko ikasleek beren obrak erakutsiko dituzte hiriko zenbait kaletan eta gunetan. Bilboko Itsasadarra Itsas Museoko



zabaldegian, Álvaro Arocaren *Paperezko Itsasontzia* esku-hartzea jarriko da ikusgai. *Sonidos Situados* da Oihane Sánchez eta Saray Pérezek asmatutako proposamenaren izenburu iradokitzailea, Abandoibarra pasealekuan erakutsiko dena. Alberto Salcedoren *Ersilia* Aretxaga eta Martzana kaleetan egongo da, eta Arantza Gaztañagaren *Ttakun Zeramikoa* Jado plazan. Hain zuzen ere, horiek izango dira EHUK egingo dituen ekarpenak. Halaber, Pinturako Masterreko ikasleek haien lanen aukeratzea erakutsiko dute.

Amets egiteko artea. Haurrentzako tailerrak eta familia-jarduerak

Haurrek eta familiek ere beren lekua daukate Arteen Asteburuan. Albia lorategietan, maiatzaren 14an, larunbata, etxeko txikienek sormena libre utzi ahal izango dute “Los amigos del relojero Cruso” instalazio ludikoaren bidez, 11:30etik 14:30era eta 17:00etatik 20:00etara. Beste alde batetik, Rekalde aretoan, heldu batek edo bik lagundutako 4 eta 11 urte bitarteko haurrentzako familia-tailerrak eskainiko dira.

Sentitzeko artea. Musika

Bilbo musikaz gainezka egongo da asteburuan, zuzeneko kontzertuak egongo baitira hiriko toki askotan. Kale Nagusia eta Portuko Markesa kalearen artean, Fetén Fetén taldeak ikuskizuna eskainiko du maiatzaren 14an, larunbata, 12:30etik 13:30era. Ricardo Urrutia jazz-hirukoteak Martzana kaian biltzen diren ikusleak girotuko ditu larunbatean, 12:00etan, 13:45ean, 18:30ean eta 19:45ean. Mud Candies taldeak egun berean eskainiko du emanaldia, Juan Ajuriagerra kaleko 22. zenbakian, 13:30ean eta 19:00etan. Baffle DJs taldeak Jado plazan joko du eta tailer bat garatuko du maiatzaren 14an, 13:00etan, eta Txalamako taldeak egun berean 18:00etan, Kale Nagusian, Diputazio kalearekin gurutzatzen den izkinan. Gainera, The Godoys Wonderes bandak gauza bera egingo du Juan Ajuriagerra kalean ostiralean, 19:00etan.



Doako sarrerek eta ate irekien jardunaldiak

Hiriko museo nagusiek Arteen Asteburuarekin bat egingo dute, beren instalazioak egun eta ordutegi berezietan doan bisitatzeko eskaintza erakargarriak eginez. Hori horrela, **Guggenheim Bilbao Museoak** maiatzaren 14an, 18:00etatik 20:00etara, jendearentzat ateak zabalduko ditu ohiko tarifa ordaindu behar izan gabe. **Bilboko Itsasadarra Itsas Museoak** doan irekiko ditu ateak larunbatean, hilak 14, igandean, hilak 15, asteartean, hilak 17, eta asteazkenean, hilak 18. Bilbao Arte Zentroak eta hiriko Galeria nagusiek, artistek berek zuzenduta, haien erakusketetara bisitaldi gidatuak eskainiko dituzte.

Kontsultatu Arteen Asteburuko jarduera-programa

www.bilbaoartdistrict.com